

LA FÊTE EST FINIE DOKUMENTALA EUSKARATU DU ARGIAK

Donostian festa hasi besterik ez da egin



Itsaso Zubiria Etxebarria
@itsasozubiria

Burura datozkit Herreran turista *chicak* erakartzeko zentro komertziala, Loio-lako bizilagunek puntako ikuskizunez gozatzeko antzoki ederra, edo Alde Zaharrean euskal gastronomia modernoarenekin esperimentatzeko gune berezitua. Kulturaren aitzakian gerturatuko diren bisitarien begietara itxuratu beharko genuke pixka bat hiriburua, ezta?

Antzerako zerbait egin zuten Marseillan 2013an, Kultur Hiriburutzaren urtean. Total, zer egingo dugu, bada, erdi utzita dauden auzo zaharkituekin? Atzerritar txiroak erakartzeko bakarrik daude gune horiek, eta gu, hiriburuko jende "garbia" dirua galtzen ari gara auzo horietan eraiki ahal eta egiten ez dugunarekin.

La fête est finie (Festa amaitu da) dokumental frantsesean ondo azaltzen dute Marseillaren historia hori, 2013ko Europako Kultur Hiriburutzak ekarritako transformazio urbanistikoarena, hiriarren paisaia aldaketarena, betiko portu industriala turistak paseatzeko gune bilakatzearena, auzo zaharrak hustu eta bizilagunak leku oraindik-eta baztertua-goetara desplazatzeko, bazterretatik hiriaren erdigunera datorren jendea zaintzeko kontrol polizialen areagotzearena... Nola zen hori? Ah, bai, gen-tri-fi-ka-zi-o-a.

Troiako zaldiarekin egiten duen konparaketa gustatu zait asko: Europako



Kultur Hiriburutza opari eder bat bezala entregatzen dizute, baina behin hirian sartutakoan...

Nicolas Burlaud zuzendariak oinarriko errektursoekin osatutako dokumentala euskaratu du ARGIAK, Donostiako Kultur Hiriburutzaren inguruan eztabaida sustatzeko sortutako *Donostiaren 2016 ertzak* egitasmoaren barruan. Antiguu auzoko Txantxarreka Gaztetxean egin da lehen emanaldia, baina ez da bakarra izango; eta asko Donostian bertan eskainiko badira ere, herri guztietarako da baliagarri, kulturaren eta kolpe urbanistikoaren gaia mahai gainean jartzeko. ■



ARGIA EGUNA URRIAREN 1EAN, ONDARROAN

Baditugu lekua eta data 2016ko ARGIA EGUNA ospatzeko: Lea-Artibaien izango da, Ondarroan, urriaren 1ean. Dagoeneko harpidedun zein eragileetako ordezkariekin hainbat bilera antolatu ditugu datozen asteotarako eskualdean.

- **Apirilaren 28an, Markina-Xemeinen:** Uhagon Kultur Etxean, 18.00etan.
- **Apirilaren 27an, Mutrikan:** Emakume Etxean, 17.00etan.
- **Maiatzaren 4an, Ondarroan:** Zine Zaharrean, 16.30ean.
- **Maiatzaren 6an, Lekeition:** Kultur Etxean, 18.00etan.

ARGIA EGUNA antolatzen lagundu nahi baduzu baina bileretara gerturatzerik ez baduzu, jarri gurekin harremanetan harpide@argia.eus helbidera idatzita edo 943371545 telefonora deituta.

Praktikak egin nahi?

Lau orduko lanaldian ARGIA praktikak egin nahi badituzu, zatoz maiatzaren 4an (asteazkena) egingo ditugun azterketara. Goizeko 10:30ean, bi lekutan egingo dira frogak: ARGIAren egoitzan (Lasarte, Zirkuitu ibilbidea 15) eta EHUKo Leioako campusean (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 11. gelan). Etorri behar baduzu, bidali e-mail bat praktikak@argia.eus helbidera, azterketa bi lekuetako zeinetan egingo duzun adieraziz. Azterketara curriculumak ekarri, mesedez.

Hautatuek praktikak egiteko hiru sasoi izango dituzte aukeran: 2016ko ekainaren 1etik 2016ko irailaren 30era. 2016ko urriaren 3tik 2017ko urtarrilaren 31ra. 2017ko otsailaren 1etik 2016ko maiatzaren 31ra. Garrantzitsua: Nahitaezkoa izango da praktikak egin bitartean uni-bertsitatean izena emanda egotea.